

156



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Gaur arteko bidean Kataluniako herriak ez du gutxi erakutsi. Ausardia eta duintasuna. Kementa eta inteligentzia. Ezina ekinez egina. Bagenekien, halere, lehenago edo geroago Estatuaren horma krudel eta bortitzarekin topo egingo zutela. Une horrek sortzen zituen zalantzak. Errepresioari aurre egiteko gaitasunak. Aurre egiteko edo behintzat eusteko.

Bada, igaro zen urriaren 1eko erreferenduma. Igaro zen eta lezio berri bat eman ziguten. Erabateko konbenzimenduz jantzitako herritar oldea geratzea ez da hain erraza. Zailtasunak zailtasun, herritarrek boto-kutxak bete zituzten. Ondoren, atzera-aurrera batzuen ostean, emaitzak aintzat hartu eta iritsi zen hainbeste itzarotako eguna: Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen parlamentuak. Estatuaren erantzuna ere esperotakoa izan da: 155 artikulua aitazkiapean, estatu kolpea Kataluniako erakundeei, kartzela eta jazarpena.

Hortik aurrera bi erraileko bidea ikustear geundela uste genuen: batetik, errepresioari aurre egiteko ekintzena; bestetik, errepublika materialki mami-tzeko urratsena. Lehenengoak hartu du indarra, ordea. Salbuespen egoera erabatekoa izanik, erantzun antierrepresiboan murgilduta daude herritarrek eta ordezkari politikoak. Klean, protesta masiboak; erakundee-tako ordezkariak, berriz, salaketa politikoan, gatazka nazioartekotzeko eta Espainiako Estatuaren autoritarismoa erakusteko ahaleginetan.

Jarrera hori erabat ulergarria den arren, errepublikaren garaipenerako funtsezkoa da herritarrek, orain arte bezala, egingarria dela sinestea. Uste osoa izatea, kosta ahala kosta, herriaren indarrari esker lortuko dutela. Horretan biziki lagunduko luke estatu-egiturak osatzen ari direla irudikatzeak.

Batasuna mantentzea funtsezkoa izango da beste behin ere. Ez da hauteskunderietan jausteko garaia. Eta batasuna mantentzeak ez du inondik inora ere zerrenda bakarrean joatea esan nahi; herri-estrategia bateratu bati erantzutea baizik

Gauza nimiño eta sinbolikoak badira ere, mentalki beste agertoki batera darama herritargoa. Jendeak sugarra erne mantentzeko aurrerapausoren bat beharko luke, esaterako prozesu konstituziogilean. Egoera latza eta gogorra

izanik ere, ilusioa ez zapuzteak berebiziko garrantzia du.

Beste horrenbeste gertatzen da abenduko hauteskundeei begira. Erabat deialdi antidemokratiko eta salbuespenekoa izateaz gain, marko diskurtsibo arriskutsua gailentzen ari da: 155aren aurkako eta aldeko blokeak. Horrek egoera Kataluniako Errepublikaren aldarrikapenaren aurreko sasoirako leheneratzen du. Arazoa 155a izango balitz bezala eta ez Espainiako demokrazia eza. Independentismoari komeni ez zaion atsekabea sor dezake horrek. 155a gaindituta, 156etik aurrera josi behar dira borondateak. Narratiba berri bat beharko dute. Blokeak irudikatzeotan, honakoak hobetsiko nituzke: errepublikaren aldekoak eta kontrakoak. Izan ere, horrek mentalki jada existitzen den errepublikaren defentsan jartzen ditu herritarrek, aurrera bidean. Errepublikari hauteskontzietan beste berme bat emateko balio dezatela hauteskunderiek.

Halaber, telebista piztu besterik ez dago Espainiako aparatuen beldur nagusiak zeintzuk diren ikusteko: independentisten batasuna eta legitimazio demokratikoa. Behin eta berriro hedatzen ari dira alderdi eta ordezkari independentisten artean arrakala sortzeko eta irudikatze mezuak. Batasuna mantentzea funtsezkoa izango da beste behin ere. Ez da hauteskunderietan jausteko garaia. Eta batasuna mantentzeak ez du inondik inora ere zerrenda bakarrean joatea esan nahi; herri-estrategia bateratu bati erantzutea baizik. Amore emateko tentazioa izango du batek baino gehiagok, baina egindako bidea ez da alferrik igaro. Orain arte bezala eutsi eta aurrera jarraitzeko indar zakukada bat bidaltzeko balio dezatela azken lerro hauek. Etsitzeak, euren ez ezik, gurean ere atzera bueltarik gabeko eragina izango bailuke denbora luzez. ■